

## Seminario eguna

Eldu da abendua. Dendak eta komunikabideak aidean eta leentxoagotik artu deusie usaina eta Gabonetan eta Gabonaldian zer jantzi eta jan, zer edan eta erosi, zer erregalatu bear dogun esate burrundadetan sarturik doguz jo ta ke bizian, zeinek baino zeinek aundia-goak eta egokiago esan, zeinek baino ziria bigunago sartu eta kontsumo altara aurrera zeinek geiago eroan balebiz lez ekinaalean.

Urterokoa dogu. Telebisteak arduraz aukeratu ditu bere zabalkunderako irudi, doinu eta letrak, irratia esanik be ez, egunkariak iragarkiz aberats agertzen dira, kaleak be argiz eta apaintzen deuskuez, eta Gabonak urreratu ainean, zorionak opa deuskuezan letrerotxoak agertuko jakuz izar eta guzti apainduta. Urtean zear erdi alboraturik sarriegi izaten dogun lagun eta senideei idazteko oiturea be sasoiz gogoratuko deuskue komunikabideetatik, eginbear orretarako tarjetarik egokienak zeintzuk diran be komunikabideetatik jaso geinkelarik. Urteroko zaparradea au be.

Bada urtero, il onen zortzian, Andra Mari Sortzez Garbiaren egunean gogoratzen jakun beste arazo bat be: Seminarioarena. Arazo bizia, geroago eta larrigo lez agertzen dan arazoa. Baina onek ez dau kontsumorako balio eta ez dau Gabonaldiaren propaganda eta zabalkunderik izaten. Egunaren inguruan Erri Irratietatik alkarrizketatxoren bat edo beste, gotzainen agiritxoa, abadegaien ardurea esku artean darabilenen aldizkarietako aalegintxoren batzuk, egunkariren batzuetan ataltxoren baten zerbait idatzirik emotea, Ikastxeren ba-

tzuetan filminaren batzuk emotea, katekesietan gaitxoren bat aztertzea eta gitxi geiagorik. Telebistaraino sartzea lortzen bada, pozik. Aaztu egiten jatan, mezata-ra datozanei abadeak emoten deutesen jardunalditxoa be bai. Urteroko arazoa au be!

Seminario egunak zer esan gura dauan, zer gogoratu gura dauan, bada-kigu. Urtero gogoratzen jaku azken urtetotan beintzat. Seminarioa ez da elburua, bidea baino. Eleizearen zerbitzu berezian biziko diranak gogoratu gure deuskuz. Abadegaiei begira eratzen da batez be, baina beste bizitza sagaratu moetak kontutan arturik.

Abade, erlijioso eta monjak urritu egin dira azken partean; eleiza asko arduradun barik aurkitzen dira eta daroagun bideari jarraitzen badeutsagu, urte gitxiren buruan utsunak andiangoak izango dira. Larregi lez ikusten oiturik bagengozan be, ez dabil urrun urritasun gorriak joko gaituan eguna. Familia barruan, gazteen biotzetan sartu bear da ardura au. Kristinau erriak berak aurkitu bearko deutso urtenbidea. Lurralde-ren batzuetan, Poloniako kasua, seminarioak gainezka lez ei dagoz, baina urruneko ugaritasunak ez dau gure etxe-ko urritasuna konponduko. Nondik jo, zelan konpondu, ara or Seminario Egunak begien aurrera botako deuskun itaun aundia. Biotzeraino eta geure fede bizi-tzaraino be sartuko al jaku bere garra-sia!